# ATXIKITZEKO INPRIMAKIA

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria da, ezberdintasunean, bereizkerian eta gizonek emakumeen gainean duten boterean oinarritutakoa. Indarkeria hori gure gizartean nagusi diren sistema heteropatriarkalaren eta matxismoaren ondoriozkoa da. Halaber, **egiturazko izaera** du; izan ere, bizitzako esparru guztietan jasaten dute emakumeek (sozialean, ideologikoan, politikoan, kulturalean, juridikoan, ekonomikoan, etab.) eta hainbat formatan agertzen da (indarkeria sexuala, psikologikoa, ekonomikoa, etab.). Indarkeria horrek, emakume izate hutsagatik emakumeak aurrez aurre jarri ez ezik, gizonak eta emakumeak nola jokatu behar duten zehazten duten agindu sozialak urratzen dituzten pertsonen arteko gatazkak ere sortzen ditu: gayak, lesbianak, bisexualak, transexualak, intersexualak eta transgeneroen aurkako indarkeria.

Nire establezimenduak GENERO-INDARKERIARIK GABEKO GETXOKO ESPAZIOEN SAREAREKIN bat egiten du edo lehendik zeukan atxikipena berritzen du. Hala, jarraian adierazitako **konpromisoak hartzen ditut:**

- “Indarkeria matxistarik gabeko espazioa” dioen bereizgarria ondo ikusten den toki batean jarriko dut.
- Ez dut publizitate sexistarik erabiliko.
- Ez dut jokaera matxistarik, arrazistarik edo xenofoborik onartuko nire establezimenduan.
- Nire enpresak ez du generoaren ziozko berezikeria bultzatuko eta honako hauek babestuko ditu: soldata berdina, tratu berdina, eta sexu-jazarpenaren aurkako protokoloa.
- Getxon dauden baliabideak jakinaraziko eta zabalduko ditut.
- Udalarekin arituko naiz elkarlanean indarkeria matxista desagerrarazteko.

☐ Indarkeria matxistarik gabeko Getxoko espazioen sarearekin bat egiten dut.

☐ Indarkeria matxistarik gabeko Getxoko espazioen sarera dudan atxikipena berritzen dut.